

<i>Berdintasun zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
<b>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Data: 12-04-2018

Lekua: Urgull

Ordua: 17:00etatik 19:00etara

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbitzazu

Roda: Clara Lorenzo Quevedo

EH Bildu: Nerea Guijarrubia García

Ciudadanos-Herriarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo Gonzalez

Udal Talde Sozialista: Josefina García Palacio

Talde Popularra: Susana de Cos Yañez

ELA: Elvira Lemona Díaz

Berritzegunea: Emilio Martinez Hortal

Lehendakaritza: Keltse Eiguren Alberdi

Idazkaria: Bego García Martínez

Gizatiar: Margarita Tarazaga Brillas

Eskuz-esku: Isabel Perez Ares

**Bertaratu ez direnak:**

Emakumeon Ahotsa

**Gai zerrenda**

- Aurreko akta onartzea
- M8aren balorazioa
- Emakumeen aurkako indarkeria kasuetako erantzun publikoaren protokoloaren berrikuspena
- Berdintasun politiken 2017ko memoria eta ebaluazioa
- Galde-eskeak

## Aurreko akta onartzea

---

Aho batez onartu da aurreko bilerako akta.

## M8aren balorazioa

---

Berdintasun teknikariak aurtengo M8aren kanpainaren berri eman eta antolatutako ekitaldietako asistentzia azaldu du.

### Aurtengo kanpainaren edukia honako jarduera hauek osatu dute:

- Martxoaren 4a. **Stasa Zajovicen hitzaldia**: Estrategia feministak gerra-krimenetan eta gatazka armatuetan. Justiziaren ikuspegi feminista. Belgradeko beltzez jantzitako emakumeak.

Hitzaldira 20 lagun etorri ziren.

- Martxoaren 13a. Mahai-ingurua. **Desikasiz ikasi, eskolako bizikidetzaz berreraikitzeko**. Bea Ugarte eta Josetxu Riviere.

16 lagun etorri ziren.

- Martxoaren 20a. Ipuin-kontalaria, Beatriz Egizabal. **"Yo y punto"**.

9 lagun etorri ziren.

- Martxoaren 9a. **Omenaldia Satur Aboni**.

Eskuz-eskuren ordezkariak Andres Isasin antolatutako ekitaldiaren berri eman du. Azaldu du arrakasta handia izan duela, 200 lagun inguru etorri ziren-eta. Besteak beste, Itxartu taldea eta Gontzal Mendibil aritu ziren.

M8aren harira eta aurreko kanpainetan antolatutako ekitaldiei dagokienez, berdintasun teknikariak jakitera eman du ez direla lortu espero ziren emaitzak jendearen parte hartzeari dagokionez. Haren ustez, ekitaldi-eredu hau agortuta dago. Beraz, beste formatu bat asmatu beharko litzateke, ahalik eta pertsona gehien erakartzeko eta jendearen artean inpaktu handiagoa lortzeko eta, ondorioz, udalerrian berdintasunaren inguruan sentsibilitatea eta prestakuntza zabaltzeko.

Proposatu eta erabaki da aurrerantzean, kanpaina bakoitzean, ekitaldi bakar bat antolatuko dela, potenteagoa, eta une bakoitzean erreferenteak diren pertsonak ekartzen saiatuko garela, horrela biztanle gehiago erakartzeko asmoz.

### Triptikoak eta kartelak banatzea. Kanpaina zabaltzea.

- A3 tamainako 250 kartel inprimatzea, kanpainaren irudiarekin, eta programa paper iztukatu eta distiratsuan, 135 gramokoa.
- Irudia Getxoberriren formatuari egokitzea
- Adierazpen instituzionala.
- Emeki aldizkaria
- Prentsa-oharra

### **Emakumeen aurkako indarkeria kasuetako erantzun publikoaren protokoloaren berrikuspena**

Gaurko kontseilurako deialdiarekin batera, protokoloa aldatzeko proposamena erantsi zen. Etorri diren pertsona guztiek onartu dute. Erabaki da aldaketa horiek jatorrizko testuan sartzea eta berriro bidaltzea, ekarpenak egin ahal izateko, eta kontseiluaren hurrengo batzarrean behin betiko onesteko.

Berdintasun teknikariak iradokitako aldaketak azaldu ditu, laburrean. Gainera, erantsi du ez dela egon behar erantzunik gabeko erasorik, eta edozein erasoren aurrean erantzuna zero tolerantzia izan behar dela. Erantsi du Getxon, udalerrri guztietan bezalaxe, egunero gertatzen direla emakumeen aurkako indarkeria-kasuak, mota eta forma askotan, eta horiei erantzun egokia eman behar zaiela, jazotakoaren tamainakoa. Erantzun hori ez da zertan izan behar beti

elkarretaratzea. Iradoki da, adibidez, protokoloa zenbat aldiz aktibatzen den gorabehera, egun bat finkatu daitekeela, urtean jazotako eraso guztiak erabat gaitzesteko, eta indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumeei jendaurreko aintzatespena egitea, beren bizitza berreraiki eta sendatzeko.

Hala eta guztiz ere, eta aldatu beharreko kontuei dagokienez, eztabaida bat piztu da. Hauek izan dira interbentzio esanguratsuenak:

- GUKen ordezkariak azaldu du Romon ustezko eraso bat egon dela, sare sozialetan hedatu dena. Badirudi ez zaiola erantzunik eman. Gertaera honi buruz, etorri diren pertsonetako batzuek adierazi dute itxuraz konfirmatu gabeko kasu bat dela, eta ez dela oso sinesgarria. Modu berean, urtero biktime guztiak aintzatesteko ekitaldia egitearen alde agertu da.
- Bilguneko ordezkariak esan du kasu guztiak ez direla amaitzen polizia-etxean edo salaketarekin. Erasoak edo tratu txarrak daudenean emakumeei eman behar zaien tratamenduan poliziak dituen irizpideez galdetu du. Berdintasun zinegotziak, horri erantzuteko, Udaltzaingoaren harrera-prozesua azaldu du.
- Gizatiarrek galdetu du biktimei epaitegietan nolako tratamendua ematen zaien, eta tratamendu hori izan ote daitekeen emakumeek salaketarik ez jartzeko arrazoia. PPren ordezkariak esan du egoera hori laster aldatuko dela (indarkeriaren aurkako estatu-ituna).
- Ciudadanosen ordezkariak proposatu du protokoloa aktiba dadila eraso edo gertaera adingabekoen aurrean jazo denean ere. Proposamenak ez du aurrera egin.
- EH Bilduko ordezkariak esan du eraso guztiak salatu eta erakutsi behar direla. Horretarako, politikak indartu behar dira eta, bereziki, gazteekin lan egin.

## **Berdintasun politiken 2017ko memoria eta ebaluazioa.**

---

Berdintasun teknikariak "2017ko Kudeaketa Plana betetzea" izeneko dokumentuaren berri eman du (deialdiari erantsi zitzaion). 2017rako konprometitu ziren neurriak betetzearen ebaluazioa duen dokumentuaren zirriborroa da; datu kuantitatibo eta kualitatibo gehiagorekin osatu behar da. Amaitzen denean webgunera igoko da eta jendaurrean erakutsiko da.

Berdintasun zinegotziak esan du, Berdintasun Plana otsailean onetsi zen arren eta hilabete batzuetan berdintasun zerbitzuan teknikaririk egon ez den arren, neurrien portzentaje handi bat burutu dela. Zehazki, konprometitu ziren 69 neurrietatik guztira 48 ezarri dira, hau da, guztien % 69. Eta kontuan izanik guztiz finkatu diren eta hasi diren neurriak, portzentajea % 91 da. Hasi ez diren baina finkatzeko 2018ko ekitaldira eraman diren neurrien % 9 baino ez da geratzen.

GUKen ordezkariak kultur arloan egin ez diren neurriei buruz galdetu du. Berdintasun teknikariak azaldu du denbora faltagatik ez direla egin, baina dagoeneko batzarrak adostu direla gai horri heltzeko. Zehazki, kulturaren alorrean berdintasuna sustatzeaz arduratuko den Berdintasun eta Kultura Batzordearen sorrera.

Berdintasun zinegotziak hasi ez den neurria azpimarratu du, zeinaren erantzukizuna Berdintasun zinegotziari dagokion. Neurri hori berdintasun politikak koordinatu eta bultzatzen dituzten funtsezko organoen osaera eta funtzioak birdefinitzean datza. Zentzu horretan, adierazi du organo hori ez dela sortu udala barne berrantolaketako prozesu batean dagoelako, oraindik amaitu ez dena.

GUKen ordezkariak Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Foru Arauaren proiektuari buruz galdetu du. Berdintasun zinegotziak erantzun du aipatutako arauak ez duela eraginik tokiko administrazioan; izan ere, Aldundiaren eskumenetan baino ez du eragina.

## **Galde-eskeak**

---

Berdintasun teknikariak azaldu du hurrengo kontseiluan jaietako kanpainaz eta ekainaren 28az hitz egingo dela.

Kontseiluaren hurrengo batzarra maiatzaren 17an izango da, Romo Kultur Etxean, 16:30ean.